

Obanos'eko «misterioa»

Izen aundikoa da, azken urteotan alan be, Obanos'eko «misterioa». Zubero aldeko pastoralen antzera erriko plazan ospatu oi dan teatru ikusgarria. Aurten, Konpostela'ko Urte santua dala-ta, zortzi egunean, jarraian, aguztuaren 20'tik 27'ra antzeztuko dabe. Gaur, 23'an, astelenean emen nazi be; ots, Obanos'eko plazan, entzute aundiko antzerki au ikusteko asmuz ona etorrita. Au be esan bear dot: Bilbao'tar Ilario jaunaren adiskidetasun gozoari esker.

Gabeko zortzi ta erdiak dira. Naparru'ko erribera aldean ekaitz ikaragarria izan da lentxoago, euri, arri ta kazkabar inguruetako ortuari, igali ta mastiak txarpil txarpil eginda itxirik. Obanos'eko plazea, ikusleentzako jarleku ta mailladiak batez be, jentez beterik dagoz. Musika leuna. Plazea erdi-illunetan. Uneka argi-pirrintaz ditziratzen. Goian izarrak, eta laino baltzak ara onaka; euri tanta batzuk, aldian bein. Baiña gau-aro ederra, ez otz ez bero. Ia jarleku guztiak bete dira. Jar-buruan gozain gazte bat, Santos Begiristain jauna ta beste batzuk inguruan ditula.

Erri polita, itxurazkoa da Obanos, urte batzuk dirala batez be. Iruña'tik 20 kilometrora aurkitzen da; Lizarra'tik arantza goazala bide erdian, eskumatik. Etxe barri askotxo ditu, kale ta zokondoak garbi; otelak, arroztegiak, ostatuak, frontoi ederra, eleiza galanta ta antxiñako erromes-bide bik txil egiten daben enparantza, zugatzez jantzia, zabal ta garbi. Gaur ederto apainduta daukie; ementxe antzeztuko da Obanos'eko «Misterioa» deritxen teatrua: lendik be, berrogetamar milla pertsona gitxienez etorriak ei dira ona berau ikusteko asmuz.

Ikusgarria da, izan be, Erri osoa dozu antzezlarik. Bai, Obanos'eko semeok gelaen bat jarten dauskue gaurkotasunez beterik antxiñako kondaira, jatorria eta tradiziño bat. Neba-arrebak ziran Akitania'ko Gillen eta Felicia; Gillen'ek bere arreba il eban Konpostela'ra osteran egin ostean, penitentzizko bizitza egiten Labiano'n geratu zalako; baiña, gero, Gillen'ek bere be, Konpostela'ra osteran egin ondoren, damuturik, padar egia eta bizitza oso latza eroan ostean, martiri il zan berton. Gai onen ingurukoa dogu

Obanos'eko misterioa, aste onetan zortzi ta erdietatik aurrera emongo dana.

Zuk be, irakurle, nik ikusi dodanetik zerbait jakin dagizun, ona sarreran eskuratu daustien papere-tik pizkat.

«Misterio au —diño— 1965'garreneko konpostelar urte santuan asi zan; eta aurtengo udan, bere VII'garren itzuleran, ain zuzen be San Luis Frantzia'ko erregearen gauan, ospatuko da bere berrogeta amargaren antzerki jaia. Beraz, Misterioaren Urrezko Eztegu bezperan gagoz.

Goi-arnasazko teatru lana da, Erdi-aroan Konpostela'ra egin oi ziran bidezkunde edo erromes-aldiak goraiatzen ditun Oratorio bat. Manuel Iribarren jaunaren bertsoak; Borondo maixuaren goinu-eresiak; Klaudio de la Torre'ren neur-zotz trebarean ardurapean.

Askoren arteko arlo miresgarria da, bakotxak bere borondate ona ta indarra jarririk. Erri guztiak bere gain artu dauan egiteko txalagarria. Gaurko teatruak ditun eun erreztasunekin, berezko antzezleku erraldoi baten, Santiago'rako bi-

deak zearkaturiko gau zoragarri-pean, aspaldiko BIDEA erregez ta eskalez, pekatariz ta santuz, ipurdantzariz ta txingotez, triskalariz, koplari, galutsez beteten yaku; eun kolorezko gizatalde guzti orren barruan mamintzen da antzerki-matasa; odol-edesti bat bizi da, ta damuzkoa, martiri ta aintzazkoa. Pekatuz ta parkapenez, fede-arnasazko giroa da nagusi; Eleiz Ama deunak emoten dauan grazi iturrrian da uste osoa. Ta guztia goitu ta itxuraldatzen dau erromar egikerako Andra Maria'ren irudi txiki batek; auxe baita Jainko-errukiaren altzo.

Erriko plaza nagusian gagoz. Plaza onek, Prantzia'tik Konpostela'ra joiazan bideen gurutz-unea adierazo nai dauku. Ta ementxe azalzen da eskutu ta «misterioaren» gaia. Erdetik begiratuta esku-iztara, etorri ta etorri datoz Oropo'tik, Naparrua'n sartu ziran gaurkoak, eskertetik, Auñamiendi bonbort'etik igaro ebereiz bidea. Arloa aurrez aurre ta erdian: bide hien batasuna adierazoten dauku onek: Arga ibaia Puente la Reina'n igarotean. Lizana'tik eta Biana'tik Naparrua gurutzatzean; Logroño'tik, Burgos'tik eta Zebrero'tik Galizia'ra eltzerakoan.

Iru irudi daukaz «Misterioak»: Konpostela'ko **bidea**, errege-alabaren **odo-eriotza** ta Arnotegi'ko Amaren bitartekotasun errukitsua. **Bidea**, bidearen beraren goraipapena dozu, ta kolore askotariko giza-berastasan bizia. **Martiritza**, edo odol-eriotza, Amokain'go jaun-etxean gertatzen da, Felizia'ren barkategian. Andra Maria'ren basilikak betiko irabazi dau Gillen; nun eta antxe aurkituko dau bearrezko dauan bakea; zorionaren gozotasuna erdi-ikusit dau bertatik. Antzez-margo-lanak irurok ipiñiko ditu —**bidea**, **jaun-etxea** ta **eleiza**— bakotxari dagokion lekuan.

Lauki edo kuadru bi ditu asierako irudiak: lenengoan agiri denez, Konpostela'ra doa mundu guztia; bigarrenean, ango ikustaldia osotu ondoren, itzuliaz datoz dának, parkapen-pozez gainezka. Erromes-sailen joatea ta etortea, erdiko musikak josten ditu.

Andiki ta zaldun mordoak ikusten doguz; au da, Borgoña'ko dukearen jarraigoa, Tolosa'ko Raimundo kondearena, arabiar errege batena... izenik bako andikiak, Witemberga'ko Ulriko kondea; berbaz dagoz plaza erdian, bertoko jentea bildur ta begi luze dalarik. Konpostela'ra erruki billa doazan

pekatariak, banandu bearko dabena maite-minduak, negar-ulu baten antzera joan doazan «penitenteak», erromes doazan gaiztakeri aundi en pekatu garbitzailleak, erriak agiriko zoritxarrak ordaintzeko bialdu ditun gizaseme nekenezaleak. Gotzain eta eliz-gizon erriak, Puy'ko gotzain adibidez, eta santu jainko-zaleak —Patras'eko gongotzain ta Frantzisko deuna berbera. Or doaz, bai, igaroaz koplarien olerkia ta kaxkariñen alaitasuna, sal-erosleen urduria, artearen era barriak, askotariko ogibideak... Gogapen eta ideien arrakustoki, begi luzean antzezleku, arrokeriaren esi-barru... bizitz-ibai!

Joanez doaz urteak eta gizaldiak, lerro ta erreskada luzean lez; bideak, ba, erri guztiak besarkatzen ditu, egunak eta urteak urtutzen. Azkenez, or vha Felizia deuna, poz-jario ta biotzarenur, bere lagun-alda loratu inguratuta.

Eta, geldirik, ihurraren buruan, atzerakoa jentea etorri datoz guztiak Konpostelarik. Atzera datoz zaldun alaia, pekatari parkatuak, santu jainkoak. Felizia da ez datorrena. Larri ta kezka datusgu aren jarraitzea, egiten yakozan

itaun mingotsai zelan erantzun ez dakialarik. Jainkozko maitasunera-ko irabazia izan da Felizia; billaketa guztiak, beraz, alperrekoak dira. Nun da errege alabea?

Amokain'en jazoten da bigarren irudia, Felizia'k lana ta aterpea eskatu zitun lekuan. Argiak ezkerretara nabarmenduko dau jaun-etxe bakar leiñargia. Bertan bear egiten dau, bertan bizi da Felizia; antxe eiote dau, iñok be asmau barrik, bere leiarrezko kondaira ezta. Bertakoak aspertu barik begiraten dabe, baita maitatu ta guregin be. Baiña Akitania'n bada zaratea, ta bakar-zalearen jaragitea gertatzen diardue. Gillen agertzen da, dukeen len-semea, asarra ta erabagitsu. Zazpi pekatu larrien gorapena dirudi, bere arreba goz samurraren aurka. Alkar esagutzen dabe; eztabaida ta trajedi larri. Gillen'ek, sumiñaldi esin eutzi, Felizia ilten dau. Erriak, izu-iltzaituta, Konpostela'runtz iltzatu dau neba iltzaillea; Felizia'ri, aliter, lur-emote gozo sentikortu egiten dautsoe.

Arnotegi'n gertatzen da irugarren irudia. Teatru-arduradunak, orixegaitik, aurrez aurre dagoan eleiza ditziratsu jarten dau argiz

ta kolorez, mendiko eleizatxo polita bai litzan.

Urre-txingar da Arnotegi, jaiera lili, erriaren aintza betea. Erromes doanak antxe dau atsedeen-leku ezta; sarri ospatzen dira bertan jai ederrak. Jentea domeketako jantziz apainduta batzen da agertokian. Erdi-aroan lez eratsu ta nagusi danak. Poza dario, ta dantza. Ba-da itsu bat be, santuen bertso-saila kankatzen dauana: Labiano'ko Felizia'ren eriotza ta mirariak. Erromeslari gaixo batek dantzu itsuaren abestia; Akitania'ko Gillen dogu erromes au, arreba iltzaillea. Bideetaz ausia dago, abaildua; egin eban gaiztakeriagaitik lotsa gorri, jainko-errukiaren gozotasuna zsmetan es dautlako nabegar betarik. Emen, gorenera elizaren vha teatro lana. Olotzari dago jente guztia. Andra Maria'ri, ta jainko-erria, ta jainko-erria sarri bertan agiten da penitentearen atzetan.

Gillen'ek, emantze erabailten dau, berri egunak, parkapenen negar ala potaren iturri itan darenen gorritze ta omenez erreia. Gaunitik zurrera Arnotegi'ko padar edo ermita-zalña deritxoke, apal-apalik. Eta askok, urteak eta

gizaldiak joanda, santu lez dei egingo dautsoe, Obanos'eko Gillen santua».

* * *

Antzerki eder biurtu dan tradiziño onek ba-dau bere oiñarria. Felizia deunaren gorputza, usteldu barik, Labiano'n daukagu oraindik, mando zuri batek bere bizkar gaiñean, Amokain'dik ara aroana. Baita Gillen santuaren burua ta beste gorpuzkin batzuk be erakusten dira oraindiño. Urtero, Pazko urrengo egunean, ango jentea, meza nagusi ostean, «arno bedeinkatu»-aren zeremonira joan oi da. Gillen deunaren burutik igaroten da-

be ardaoa, ta gero, opil-ogiakin, ara doazan guztien artean banatzen da.

Konpostela'ko berotara, urte santu onetan batez be, Santiago bideetako kondaira, jazokun eta tradiziño guztiak biztu-azoten dira. Obanos'en bereziki bizitasun apartekoa artzen dabe; izarpean egiñiko antzerki-lan zoragarri onetan, beste ezertan baiño geiago.

Argi-diztira, kanpai-ots, musika, negar-arpulu ta txapliu-sarta... go-renengo zoramen arnas bizitan, amaitu da antzerkia. Amaikak bost gitxiago, eleiz torreko erlojuan.

A. O.

